

ITSASERTZA

GIPUZKOA



G•9 Getariako San Anton

Getariako San Anton (edo "Getariako Arratoia") Euskal Herriko itsasertzeko enklabe ezagunenatariko bat da: mendi-hegal malkartsuko haitz bat da eta tontorretik kostaldearen zati luze bat ikusten da. Mendi-mazelaren goialdea leunagoa da eta funtsean apaingarria den zuhaizti batek estaltzen du, baina itsaslabarren eremuak haitzak bereizgarri duen landaredia kontserbatzen du; esate baterako, hain urria den *Armeria euskadiensis* endemismo arraroa.

Tokiko biztanleentzat eta arrantzale-herri honetara hurbiltzen den turismoarentzat eremu honek aisialdirako erabilera du nagusiki. Iparraldeko muturrean Getariako itsasargia dago.



G•10 Mendizorrotzeko sakanak

Katalogatu den guneak barnean hartzen ditu bi erreka txikiren (Arkumetegi eta Egiluze) ibarbideak, eta horiek inguratzen dituzten lurrak, Agitiko kalaren mugetaraino. Ubide estuak aldapa gogorrean jaisten dira hurbil dagoen itsasorantz, suteen eta neurririk gabeko artzaintzaren ondorioz jatorrizko landarediak osatutako estalkia galdu duen ingurune batean.

Arkumetegik gure kontinentean urriak diren landaredi termofloaren hondar interesgarri batzuk kontserbatu ditu. Halaber baliagarriak dira oso inguruko esfagnalak eta hezegune txikiak; horietan *Hyla meridionalis* delakoa, giro mediterraneoko anfibio oso arraroa, aurkituko dugu gure autonomia-erkidegoan ikus daitekeen toki bakarrean.

Ekosistema ahul horien biziraupena eremu horren babes egokiaren menpe dago, hurbileko hiri-eremuaren aisialdirako erabiltzen baita. Gipuzkoa